



Erdiguneko kaleetan zehar egindako desfilea, Foru plazara iritsi baino lehen. [LAURI]

Sagardoaren jai nagusia

Jende asko bildu zen igandean Foru plazan Sagar Uzta egunean parte hartzeko

Sagariturria egitasmoak arrakasta izan zuen

JUAN F. MANJARRÉS

ASTIGARRAGA. DV. Nahiz eta eguraldia ona ez izan, urtero bezala, bizilagun askok hartu zuen parte, joan den igandean, Sagar Uzta festan herriko plazan. Bertan, jende ugari elkartu zen eta bai Astigarra-koek bai kanpokoek goza-

tu zuten sortutako giroarekin.


Sagar Uztaren arrakasta beti segurua izaten da, eta aurtengo alaitasuna eta giro polita bizi izan zen Foru plazan. Bertara hurbildu zirenek aukera izan zuten sagardoa dastatzeko eta sagardotegietako hainbat tresna ezagutzeko. Jai honetan udalerriko

sagardotegi guztiak izan ziren eta baihoitzak 120 botila atera zituen dastatzeko. 1.440 botila erabili ziren igandean ospatutako festan.

Aurtengo sagardoa ez zen protagonista bakarra izan. Sagarrari omenaldia egiteko, ikuskizun berezia antolatu zen Goikoiturri plazan eta bertan ikaragarriko

montajea egin zuten. Ibaiaren norabideari jarraituta, adarrez egindako estruktura bat jarri zen 3,50 metroko altueran, eta haie-
tatik parte hartu nahi duen edo-
nork hostoz egindako koillareak
zintzilikatu ziren. Arrakasta
haundia izan zuen egitasmoak eta
jende guztia Goikoiturritik pasa
zen montajea ikustera. Esan zute-
naren arabera, idea gustatu zit-
zaizen bizilagunei.

Sagardoa eta montaje honetaz gain, beste ekintza batzuk anto-
laru ziren: bazkari herrikoia,
dantza, musika... ■



Igandean irudi desberdinak ikusi ziren: dastaketa, sagar eta lorez montajea eta antzinako tresnak. [LAURI]